



Euli-giro

Uxue Alberdi

“Dena ez dago gure esku”.- Julio Cortázarren “Casa tomada” ipuinaren bertsio interesgarri bat dela iruditu zait. Pertsonaiei, ipuinari, eta oro har, liburu osoari misteriozko aura bat inguratzen zaie.

“Opariak”.- Pertsonaiak (3 ahizpak, bereziki) karikaturizatuta daude, “Goazemank” saioaren umorea ekarri dit gogora. Ez-konformismoa. Mundu tradizionalarekiko arbuioa baina, aldi berean, mundu horrekiko lotura bat eta nostalgia bat gordez. Ukitu umoretsua, oro har. Gatazka konpondu nahian, giro urbanoan bilatzen du babesa.

“Oreña”.- Gizarteak emakumeari ezartzen omen dizkion rol tradizionalarekiko arbuioa. Emakumezko pertsonaia asko. Gure gizartearekiko erabateko arbuioa, oso transgresorea gertatzen den sexu-harreman baten bidez berretsia, eta batez ere, zaintzaileak atsoa erailtzean erabat berretsia.

“Su txikian”.- Umore beltza, rolekiko arbuioa, idazkuntza sinplea (ia-ia minimalista), pertsonaia nagusia inoiz ez da bere buruarekin gustura sentitzen; pertsonaia sinpleak itxuraz, baina aldi berean, sofistikatu samarrak...

“Ezertan lagun diezazuket?”.- Fikzio hutsa, baina umore beltz eta garratz samar batez nahasita; gizarte-salaketa (emakumea = biktima), akaso pittin bat topikoa. Dena dago oso neurtuta. Baina neurriak badakar berekin halako muga bat...

“Distopia literarioak”.- Mojak, literatura, barnetegiko neska gazteak, absurdua, misterioa, kezka eta beldur existentzialak, eszena sadoa, masokismo-puntu bat (erotismo sofistikatua?).

“Kamera estenopeikoa”.- Sexua, bikote-harremanak, emakume-rolak (umorez, ironiaz eta harriduraz konplitu egiten direnak), ezkontza-banaketak, ustekabeko egoerak, egoera absurduak... Protagonistari (egileari) gustatu egiten zaio bizitzako gauzen atzaparretan (lakioetan?) erortzea...

“Ondo lo egin”.- Agian ipuinik onena da hau, lehenengoarekin eta azkenekoarekin batera. Ama-alaben arteko harremanak (beti errazak ez direnak, batez ere Uxue Alberdiren munduan). Elementu bakan batzuekin beti lortzen du ipuina borobiltzea; Idazkuntzaren Artean ez da gehiegi nabarmentzen (baina euskara atsegina darabil). Ipuinaren amaieran, protagonistaren ama txakurtxo bihurtuz doa, mahai azpian alabaren oinetan uzkuriturik bukatu arte (emakume-rolak? Errealitatearen gaineko pertzepzio-mota desorekatuaren bat? Kasketaldi bat...?). Kafkiar ukitua.

“Preludioa”.- Halabeharra, giro artistikoak, larriminak (generokoak, bizitzakoak), lesbianismoa, giro urbanoa (Bilbo/Donostia/Gasteiz), emakume arteko konfidentziak, heriotza, negatibismoa, ezkortasuna.